

### 3. ERANSKINA: BAKARLARIEN BIOGRAFIAK

---



#### **MOJCA ERDMANN, sopranoa**

Mojca Erdmann sopranoa izar bat da nazioarteko musika-eszenan eta kritikak goraipatu du eta publikoak maite du bere tonuaren edertasunagatik eta bere aparteko trebeziagatik. Metropolitanera itzuli zenean 2012an, New York Timesak honakoa idatzi zuen: “Mojca Erdmannek ahots gozo eta xarmangarria eta zintzotasun zuhurra ekarri zizkion Susannari”. Bere moldakortasunagatik da ezaguna Erdmann, bere errepertorioa oso zabala baita, eta barrokoa zein musika garaikidea interpretatzeko gai baita. BBC Music Magazineak honela deskribatu zuen: “dohain izugarria duen interpretea”.

Soprano alemaniarra Deutsche Grammophon disko-etxe ezaguneko artista da. Oraingoan, Euskadiko Orkestra Sinfonikoarekin Mahlerren bakarlari-lanak egingo ditu eta, hain zuzen, paper hori egiteko eskaintza ugari jaso ditu munduko orkestra askorengandik.

Info gehiago: <https://mojcaerdmann.com>



#### **VADIM GLUZMAN, biolina**

Bere aparteko trebeziarekin, Vadim Gluzmanek XIX. eta XX. mendeetako tradizio biolinistikoa berreskuratu du eta bere errepertorio zabalean musika-proposamen berriagoak ere biltzen ditu. Bere emanaldiak mundu osoan entzun ahal izan dira zuzeneko emisioei esker eta hainbat sari irabazitako diskoz osatutako katalogo zabal bati esker, guztiak esklusiboki BIS disko-etxearentzat egindakoak.

Israelgo biolinjoleak sarri kolaboratzen du nazioartean sona handia duten zuzendariekin, Christoph von Dohnányi, Tugan Sokhiev, Sir Andrew Davis eta Neeme Järvi-rekin, besteak beste. Gainera, mundu osoko orkestra prestigiodunetan parte hartu du, esaterako: Berlingo Filarmonikoa, Bostoneko Sinfonikoa, Cleavelandeko Orkestra, Chicagoko Sinfonikoa eta Londreseko Filarmonikoa. Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren 2016/2017 Denboraldian bakarlari gisa parte hartu zuen Bordeleko ONBA orkestra gonbidatuarekin batera.

Info gehiago: <http://vadimgluzman.com/>